

SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2018KO OTSAILAREN 26KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOAN 2018KO OTSAILAREN 28RAKO DEITUTAKO GREBA OROKORREAN BETE EGINGO DIRELA ERKIDEGOARI EMAN BEHARREKO NAHITAEZKO ZERBITZUAK.**

ELA eta LAB erakunde sindikalek greba deialdia egin dute 2018ko otsailaren 28rako. Greba-deitzaileen arabera, deialdiaren eraginpean daude *foru eta tokiko sektore publikoan diharduten langile guztiak —funtzionarioak, lan-kontratudunak eta estatutupekoak— eta foru eta tokiko administrazioen jarduera guztiak, merkataritza-sozietate publikoak, enpresa-entitate publikoak eta foru eta tokiko sektore publikoko gainerako organismo publiko eta enteak, EA Eren lurralde-eremuak, kontuan hartu gabe zein administrazioen menpe dauden.*

Greba 2018ko otsailaren 28rako deitu da, ordu-tarte hauetarako: 11:00etatik 15:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Hauek dira greba orokorraren helburuak, deialdia egin dutenen arabera:

“1.- Negoziazio kolektiboaren blokeoa.

Egoera salatzea, eta hura berreskuratzea. Urte batzuetatik hona, negoziazio kolektiboa erabat blokeatuta dago sektorean. Toki Administrazioko hitzarmen kolektiboa, Udalhitz, berritu gabe dago 2010. urteaz geroztik (hor sartzan dira udalak, mankomunitateak eta horien mende dauden enpresa publikoak eta organismo autonomoak). Gainera, akordio hori ez da ia udal batean ere aplikatzen (soldatei, enpleguari... dagokienez). Blokeoa hausteko, negoziazio-mahaiak eskatu ditugu instituzio bakoitzean. Gaur egun, udalek ere blokeatuta dute negoziazioa, beren instituzioetan. Instituzio gehienetan ez dute negoziazio-mahairik ireki.

Foru aldundietan ere negoziazio kolektiborako eskubidea usurpatu egin da Madrilek emandako dekretu oinarritzkoen bidez, zeintzuk aplikatu egin baitira instituzio horietan. Aldundietan (eta horien mendeko organismo eta enpresa publikoetan) aurrekontu orokorretan agindutako neurriak nola aplikatzen diren begiratzera mugatzen da negoziazioa (salbuespenak salbuespen). Gipuzkoako Foru Aldundian latentea da egoera hori.

2.- Behin-behinekotasun tasa itzel eta onartezina salatzea eta horri amaiera ematea.

Gaur egun, behin-behinekotasun tasa % 36tik gorakoa da, batez beste, udaletan, aldundietan, mankomunitateetan eta organismo autonomoetan eta horien mendeko enpresa publikoetan, eta hori sektore pribatuan dagoen bitartekotasun-maila baino handiagoa da (sektoreko hitzarmen kolektiboak % 6ra mugatzen du bitartekotasuna). Bitartekotasun horrek prekaritatea eta ezegonkortasuna dakar eraginpeko sektoreetara.

3.- Pribatizazioak gelditzea, enplegu publikoa suntsitzea dakarte-eta.





Gainera, salatzekoa da toki eta foru administrazioetan gertatu den enplegu-galera itzela (% 10 inguru) eta pribatizazioen gorakada. Gero eta gehiago dira pribatizatutako zerbitzuak eta pribatizatze bidean daudenak. Aldarrikatzen dugu zerbitzu publikoak publikoak izan behar duela bai titulartasunari dagokionez, bai kudeaketari dagokionez”.

Grebaren esparrua —Euskal Autonomia Erkidegoa— kontuan izanik, horko gobernu-agintaritzari dagokio behar diren bermeak ezartzea, bai Toki Administrazioak eta Foru Administrazioak, bai gainerako organismo, instituzio, entitate edo enpresek ematen dituzten erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeko, zerbitzu publikoetan edo behar-beharrezkoak eta atzeraezinak direnetan, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoan xedatuari jarraikiz.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikuluan greba egiteko eskubidea aitortzen zaie langileei, beren interesak defenda ditzaten, eta eskubide hori egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen oinarrizko eskubideetako bat da. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, informazio-askatasuna eta benetako babes judiziala, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, behar diren neurriak hartu behar dira erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa ondorioztatuta, nabaria da ezen, oinarrizko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorrotzasunez aplikatu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, «egokitasun-judizioa» deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatzea ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak (122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003).

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, horregatik, beharrezkoa eta nahitaezkoa da orekaz jokatzeko, interes guztiak kontuan hartuta. Hori dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertu behar da grebalarien eskubidea mugatu egin beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, haien eskubideak grebaren bidez babesteak erkidegoari —edo nahitaezko zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari edo





hartzaileari— eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakasta-falta baino. Horregatik, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan, eta, zehazki, grebaren denbora-eremua (lau orduko lanuzteak otsailaren 28an, deialdian adierazitako ordu-tarteetan) eta grebaren jarduera-eremua (produkzio-sektore guztiak eta lanleku guztiak).

Konstituzioaren 15., 27. eta 43.1 artikuluetan, bizitzarako, osotasun fisikorako, osasunaren babeserako eta hezkuntzarako eskubideak babesten dira, eta horiek bermatzea botere publikoei dagokie, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Beraz, greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ez daitezke babesik gabe geratu. Babes horrek, bestalde, ezin du inola ere greba-eskubidea edukiz hustu, haren aplikazioa mugatua izan behar baita beti, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraikiz. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, erkidegoan nahitaezko zerbitzuak bermatzeko, ondoren adierazten diren eta agindu honetan zehaztuta geratzen diren sektoreetan.

Horregatik, Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan erabaki du proportzionaltasun horren zehaztapenez eta edukiaz, eta hori kontuan hartu beharrekoa izango da, beti, greba batean izan beharreko gutxieneko zerbitzuak erabakitzen direnean. Horren harira, epai hauek aipa daitezke: Konstituzio Auzitegiaren 122/1990 Epaia, 3. oinarri juridikoa; KA 123/1990 E, 4. oinarri juridikoa; KA 123/1990 E., 4. oinarri juridikoa; KA 8/1992 E., 3. oinarri juridikoa eta KA 126/2003 E., ekainaren 30ekoa. 5122/1998 babes-errekurtsoa. Konstituzio Auzitegiaren 2003/126 Ebazpena (4. oinarria), besteak beste.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat nahitaezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, beraz, beharrezkoa eta ezinbestekoa dela zuhurtasunez jokatzea, interes guztiak kontuan hartuta. Hau da, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu egin beharko dela — amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak erkidegoari edo nahitaezko zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioen edo eskakizunen arrakasta-faltak ekarriko lukeena baino.

Azaldutakoa kontuan hartuta, udalek eta aldundiek ematen dituzten nahitaezko zerbitzuak aztertu behar dira. Greba honen aurrekari gisa, lehenagoko deialdiak aipa daitezke, ente horietako batzuei eragin dietenak; deialdi horietan, behar ziren aginduak eman ziren, toki eta foru erakunde horietako langileek betetzen dituzten erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuak bermatzeko. Agindu horietan azaldutako motibazioak orain ere aplikatu daitezke; izan ere, kasu horiek bat datoz funtsean, greba-deialdirako motiboei eta lanuzteak egingo diren orduetara dagokienez.

Horregatik, Toki Administrazioak eta Foru Administrazioak, udalek eta aldundiek, erabat administratiboak diren zerbitzuez gainera, nahitaezkozat jo beharrekoak diren beste batzuk ere ematen dituzte, hala nola Prebentzio Zerbitzua, Bide-zaintza, Suteen Itzalketa eta





Salbamenduko Zerbitzua, udal-titulartasuneko egoitzetan adinekoak zaintzeko zerbitzuak, adinekoak artatzeko etxeko zerbitzuak eta "Haurreskolak". Horregatik, gutxieneko zerbitzuak finkatu gabeko greba batekin (4 orduko lanuztea izanda ere), ordu-tarte bakoitzean, kalteak nagusituko lirarteke lortu nahiko litzatekeen helburuaren gainetik. Hori guztia ikusita, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu, aipatu nahitaezko zerbitzuak bermatzeko, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egin nahian.

Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Sektorea eta batzuk.

Erkidegoak prebentzio, su-itzalketa eta salbamendu zerbitzuek betetzen dituzten funtsezko prestazioak jasotzeko duen eskubideaz ari garela —zerbitzu horietan sartzen dira suteak itzaltzeko zerbitzuak, errepideen mantentzea, neguko bide-zaintza eta babes zibila—, zerbitzu horiek erkidegoarentzat nahitaezkoak direla jotzen da, zerbitzu horien xedea baita larrialdia ezbehar ez bihurtzea.

Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua (aipatu diren zerbitzuekin) erabat lotuta dago erkidegoak funtsezko prestazioak jasotzeko duen eskubidearekin, bai larrialdi bat ezbehar ez bihurtzeko, bai ezbeharretan jarduteko; beraz, zerbitzu horiek mantentzea aurreikusi behar da, lanuzte-orduetan sor litezkeen premia nabarmen eta apelaezineko zerbitzuak eman ahal izateko.

Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan, bizitzarako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunaren babeserako eskubideak babesten dira, eta horiek bermatzea botere publikoei dagokie, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz; beraz, greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ez daitezke babesik gabe geratu. Ondorioz, sektore hori erkidegoarentzako nahitaezkotzat jo behar da, eta, hortaz, zerbitzu hori behar-beharrezko langileekin ematea ezinbesteko eta atzeratu ezineko premiatzat jo behar da.

Bidezkotzat jotzen da gutxieneko zerbitzutzat ezartzea jaiegun bati dagokion dotazioa, grebak irauten duen artean.

Gizarte Zerbitzuen Sektorea

Gizarte-zerbitzuak, bestalde, babes-neurrien multzo gisa eratuta daude, mendekotasuna duten edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bizitzeko gutxienezko baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzeko. Ezin da ukatu zerbitzu hauetan lan egiten dutenen jarduera oso garrantzitsua dela gizartearentzat: egoitza-zerbitzuak (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak adinekoentzat), eguneko zentroak — desgaitasun fisikoak eta psikikoak dituztenei arreta emanez—, etxeko laguntza-zerbitzuak eta adingabeen etxebizitza komunitarioak eta egoitzak, eta esku-hartze sozialeko zentroak. Zerbitzu horien hartzaileak ezin dira bakarrik moldatu, duten egoera subjektibo eta pertsonala dela-eta. Beraz, sektore honetan gutxieneko zerbitzuak finkatu ezean (nahiz eta greba lau orduko bi ordu-tartetan egin 2018ko otsailaren 28an), baliteke kalteak nabarmen gailentzea



lortu nahiko litzatekeen helburuaren gainetik; izan ere, egoera horietan, pertsona batzuen osasuna eta segurtasuna arriskuan jar daitezke.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da zerbitzu horietako funtzio guztiak ez direla nahitaezkoak. Nahitaezko funtzioetat «zuzeneko arretako zerbitzuak» hartu behar dira; zerbitzu horien xedea da arreta jasotzen dutenen oinarrizko zainketa pertsonalak emango direla bermatzea. Zuzeneko arretako zerbitzuen barruan, arreta sanitario eta geriatrikoekin batera daude otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, mendekotasun-egoeraren arabera, higie pertsonala eta altxatzeko, garbitzeko, jantzeko edo jateko laguntza. Era berean, eremu biopsikosozialaren mantentze eta kontserbazioetat hartzen dena ere bermatu beharko da.

Adinekoen egoitza-zentroi dagokienez, ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera: jarduera handiagoa izaten da goizeko lehenengo orduetan (jaiki, higie pertsonala, jantzi, medikazioa, gosaria eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, gerokultoreek arreta pertsonalizatu handiagoa eman behar dute ordu horietan. Horren ondorioz, ordu horietan beharrezkoa da langile horietako gehiago egotea, eguneko gainerako orduetarako ezarritako oinarrizko langileei laguntzeko; izan ere, gainerako ordu horietan, bezeroen beharrezko erantzuteko jarduera txikiagoa izaten da.

Era honetan, Zahar-egoitzetan egin diren greba-deialdietan, zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 70 ezarri izan da, bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, tarte horretan % 10 gehituko baita ehuneko hori.

Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. gradu mendekotasun aitortua duten zentroetan, gerokultoreen eta parekatuen ehuneko % 80koa izango da.

Zuzeneko arretaren nahitaezkotasunaren irizpide bera aplikatu behar zaie, baita ere, mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroi, zeinetan egoitzetan baino langile gutxiago izaten baitira, oro har; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, hain zuzen, langileei buruzkoa da). Zuzeneko arretako zerbitzuetan, zerbitzu hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 egongo dira, gosari eta bazkaritarako ohiko ordutegian izan ezik, tarte horretan % 10 gehituko baita ehuneko hori.

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 epaiak xedatzen duenez, "greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroi eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroi dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da delako izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada".





Zentro horietan nahitaezko zerbitzutzat hartu behar da, gainera, mendekotasun-egoeran dauden erabiltzaileen garraioa, horien desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako nahitaezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin bestelako garraio bideren batez, garraio bideak haien mugikortasun-gaitasunera behar bezainbat egokituta egon behar direnez gero. Bestela, pertsona horiek ezin izango lituzkete jaso prebentziorako, mantentzerako eta «eguneroko bizitzarako oinarrizko jarduerak» izenekoak hobetzeko beharrezkoak diren arreta eta zerbitzu asistentzialak, terapeutikoak eta sanitarioak (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 24. artikuluan bermatzen diren moduan).

Gai horri buruz, gobernu-agintaritzak honek ehuneko jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo baitu zerbitzuaren "helburuak" zehaztea, adierazi den moduan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko epaiak, zeina 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorrerako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduarekin lotuta eman baitzen, zerbitzuaren nahitaezkotasuna onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapen horri arrazoitzea falta zitzaiola, "zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik", eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Izan ere, erabiltzaileen desgaitasunengatik zerbitzua gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek ematea behar-beharrezkoa den neurrian, ezin da % 100etik beherako ehunekorik eman. Bestalde, kasu horietan ezin da, ezta ere, egin beharreko garraioaren murrizketa portzentalik ezarri, zerbitzua eman arren zerbitzu hori txikiagoa izateko moduan, langileek egin beharreko lanaldia ohi baino gehiago luzatzea ekarriko bailuke horrek. Beraz, egoera honetan, garraio bereziaren bidez ematen den nahitaezko zerbitzua bermatzeko, litekeena da langile horietako batzuei —halako zerbitzua eman dezaketen bakarrak direnez— guztiz murriztea dagokien greba-eskubidea, non eta erabiltzaileen mugikortasunerako gaitasunei behar bezala egokitutako beste garraio bide batzuk ez dauden.

Adingabeen egoitzei, etxebizitza komunitarioei eta esku-hartze sozialeko zentroei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko autoak kendu egin zituen bidaiderik gabeko adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak —2013ko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez jarriak—, eta, horien ordean, jaiegun batekoak ezarri zituen. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 epaiaren bidez, deuseztatzen jo ziren 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan bidaidea duten adingabeentzako egoitzetarako ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak —lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak ezarri ziren—, eta bidezkotzat jo zen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoak izan behar zirela.

Azkenik, Etxeko Laguntza Zerbitzua gizarte-zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluan jasotzen dena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dauden zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean. Laguntza pertsonaleko, orientazioko eta egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak zuzenean





egiteko arretak hartzen ditu; esate baterako, ohetik jaikitzea eta oheratzea, janzteia, etxea garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioa kontrolatzea, mugitzea eta joan-etorriak egitea, familiaren antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea. Horiez gainera, beste jarduera osagarri eta beharrezko batzuk ere egiten dira, bai zerbitzuaren xedek lortzeari begira, bai etxetik kanpo laguntzeari begira (eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara joaten laguntzea). Bakarrik dauden edo (gradu ezberdinetan) mendekotasuna daukaten adinekoak dira zerbitzu horien onuradunak. Horretarako, agindu honen xedapen-zatian ezartzen den moduan, gutxieneko zerbitzu batzuk ezarri behar dira zerbitzu horien hartzaileek dituzten premia larrienak estalita egon daitezen; esate baterako, jatorduen zerbitzua, eguneroko higiene pertsonalaren zerbitzua, eguneko zentroetara laguntzeko zerbitzua, etab.

Hori dela eta, kontuan hartu da zerbitzuaren intentsitateak ez duela eragin bera erabiltzaile guztiengan, ondorio horiek eguneroko bizitzako jarduerak egiteko erabiltzaile bakoitzak duen autonomia mailaren arabera baitira. Grebak eragiten dituen zerbitzuak eman behar zaizkie, zalantzarik gabe, osasun fisiko eta mentalari lotutako jarduerak egiteko muga absolutuak edota kuasiabsolutuak dituzten pertsoneri. Ondorioz, mendekotasun-mailak kontuan hartuta, beharrezkoa da II eta III mendekotasun-maila duten pertsoneri zerbitzua ematea. Agindu honek aurrerago zehazten ditu eman beharreko zerbitzuak.

Hezkuntzaren Sektorea

Hezkuntzaren eremuari dagokionez, premisa gisa hartu behar da hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan onartutako oinarrizko eskubidea dela, zentzu zabalean hartuta.

Bermatu beharreko nahitaezko zerbitzuak zeintzuk diren zehazteko, eta, beraz, hezkuntzaren eremuan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan hartu behar da greba-deialdiaren eraginpean hezkuntza-zentro jakin batzuk daudela, eta horietan sartzeko kontrola udalen mende dauden langile mendekoei dagokiela.

Deialdian adierazitako ordu-tarteetan egunean zehar egingo diren lanuzte partzialak direla kontuan izanda ere, nahitaezkoa eta beharrezkoa da zentroak irekitzea greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea —Konstituzioaren 35. artikuluan onartua— gauzatu ahal izan dezaten. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, behinik behin, eta baita ikasleen sarrera ere; izan ere, zentroak irekiko ez balira, guztiz eta bidegabeki eragotziko litzateke lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharrizan bakarra ez da «ikastetxea irekitzeko» jarduera materiala; aitzitik, irakaskuntza-funtzioan edo -jardueran ezinbestekoak diren «funtzionamendu-errutinak» ere gauzatu behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak), hain zuzen ere, ikastetxe horietako instalazioei edo elementu materialei eta zaintza- eta babes-jarduerari lotutakoak; izan ere, ikastetxe haietara





ikasle adingabeak joaten direnez —adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)—, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez ere — irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezinduak zaintzeko ardurak hartzen badira [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko. Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. atala)—. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, haien ardura izan dadin prebentzio eta segurtasunerako arreta gunee jakin batzuetan jartzea, alegia, ikastetxe horietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneeetan.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak eta udal-haurtzaindegiak zabaldu beharrari dagokionez, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babestean gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko Epaian adierazitakoari jarraikiz, nahitaezko zerbitzua da, bai Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen ikuspegitik, bai lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko zailtasunaren ikuspegitik, lan egiteko eskubidearekin lotuta baitago, gizarte-harremanen izaera ebolutiboa dela-eta.

Garraio Sektorea

Era berean, zirkulazio-askatasuna bermatu behar da, oinarrizko beste eskubide batzuk ahalbidetzeko euskarri gisa, adibidez: osasun-zerbitzuetara iritsi ahal izatea, edo greba egitea edo lan egitea hautatzeko askatasuna, baita ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak emateko izendatutako pertsonen dagokien betebeharra betetzeko ere. Arrazoi horrengatik, aintzat hartu behar da bidaiarien garraioa gizartearentzat ezinbesteko zerbitzua dela, zerbitzu horiek guztiz gelditzeak leku batetik bestera mugitzeko erabateko ezintasuna eragingo lukeelako herritar askorentzat, eta horrek adierazitako zirkulazio-askatasunerako eskubidea urratuko luke.

Bestalde, herri-administrazioek bidaiak egiteko garraio publikoaren erabilera sustatu dute herritarren artean, horretarako sektorea baliabide berriekin hornituz (metroa, tranbia, eta abar) eta jada ezarritako baliabideen (trena eta autobusa, nagusiki) lineak eta zerbitzuak sustatuz, horrela garapen egokiagoa eta jasangarriagoa lortzeko, eta hiriarteko trafikoaren kolapsoa saihesteko, batez ere eguneko trafikoaren kasuan, aukera bakarra garraio bide pribatuaren erabilera izan ez zedin. Jarduera horri esker, zerbitzu publiko horiek erabiltzeko eskaria nabarmen handitu da.

Zirkunstantzia horrek, beste faktore batzuekin batera, ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak % 30ean finkatzea dakar. Hona hemen faktore horietako batzuk: hiru Lurralde Historikoetako hiriburuen eta udalerrri mugakideen (horiek guztiak biztanle askorekin) arteko komunikazioa bermatzea, udalerrri mugakideen arteko lotura modu eksklusiboan eta lanerako, hezkuntzarako, osasunerako eta abarrerako elkarrekiko mendekotasun sozioekonomiko





handiarekin, eta bidaiarien garraio-zerbitzu edo garraio-linea batzuk herritarren bidaietarako ezinbestekoak edo bakarrak izatea –bestelako aukerarik ez izateagatik, edo kudeatzen dituen beste garraio-bide batzuekiko aukera izateagatik–.

Era berean, ezinbestekotzat jo behar dira garraio-bideen koordinazioko eta kontroleko zerbitzuak, horien segurtasun-arloko zereginak, instalazioenak nahiz bertan dauden pertsonenak eta larrialdi-egoeretan jarduteak greba-egoera batean bermatu behar diren oinarrizko eskubideekin lotura dutelako. Zerbitzu horiek gutxieneko langile kopuru batekin eman beharko dira.

Horretaz aparte, greba hasi orduko zenbait zerbitzu hasita egongo dira, eta horrek – gutxieneko zerbitzurik jarri ezean– zerbitzu horiek finkatutako orduan berehala geldiaraztea ekarriko luke, eta bukatu gabe utziko lieke beren ibilbidea une horretan zerbitzuok erabiltzen ari direnei. Halaber, lanuztea bukatzen denean, hau da, zerbitzua berrabiarazterakoan, aipatutako geldiarazte horrek zailago bihurtuko luke garraio-bideen erritmoak eta maiztasunak berreskuratzea eta horrek, era berean, grebaren eraginak deituta dagoen denbora-mugatik harago luzatzea ekar lezake.

Izan ere, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzen duten enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [1981\11 KAB]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorritik (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko eta greba-kasuan nahitaezko zerbitzuei eusteko aukera, eta hori egiteko neurrietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Zerbitzu jakin batzuk nahitaezkoak dira, oinarrizko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak bermatzen du muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta hitz egiteko aukera eman zaie eraginpeko alderdiei, proposamenak egin ditzaten Jaurlaritzaren proposamenaren eraginpean egongo diren zerbitzuei eta langileei buruz.





Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16 artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio; bestalde, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez, eskumen hau eskuordetzen zaio: beharrezko neurriak ezartzeko, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean, autonomia-erkidegoko nahitaezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- ELA eta LAB erakunde sindikalek Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Administrazio eta Toki Administrazio langileei 2018ko otsailaren 28rako (11:00etatik 15:00etara eta 15:00etatik 19:00etara) dei egin dien grebarako eskubidean, ondoren adierazten diren nahitaezko prestazioak eta horiei dagozkien gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira:

1.- Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Sektorea:

Jaiegun bati dagokion suhiltzaile-dotazioa. Hala ere, oinarrizko zerbitzuak ezartzeko garaian kontuan hartuko dira egon daitezkeen fenomeno meteorologikoen alerta-mailak.

2.- Neguko errepede-zaintza eta errepede-mantentze zerbitzua.

Jaiegun bati dagozkion zerbitzuak.

3.- Garraio sektorea.

Autobusek, trenak, tranbiek, funikularrek eta ibaiko garraioek greba-deialdian zehaztutako ordu-tarteetan programatuta dituzten ohiko zerbitzuen % 30 mantenduko dute. Ehuneko hori banatzerakoan, lehentasuna emango zaie ordezkiko garraio-zerbitzurik ez duten edo osasun-zentroetara daramaten lineei. Halaber, estaldura berezia emango zaie lantokietako sarrera-eta irteera-ordutegiei. Greba hasi aurreko orduetan hasten diren zerbitzuek, horrelakorik egonez gero, ohiko ibilbidea amaitu arte jarraitu beharko dute. Era berean, aginteko, koordinazioko, kontroleko eta segurtasuneko zerbitzuak mantendu behar dira garraiobideetan, zerbitzu horietako lanpostu bakoitzeko eta txanda bakoitzeko pertsona batekin.





4.- Adinekoen zuzeneko kudeaketako egoitzetan, zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 70 izango da lanean, bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, tarte horretan % 10 gehituko baita aipatu ehunekoa.

Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduko mendekotasun aitortua duten zentroetan, gerokultoreen eta parekatuen ehunekoa % 80koa izango da.

Zentro horietako beste langileei dagokienez, honako kopuru hauek ezarriko dira oinarritzko zerbitzuak bermatzeko:

- Osasun arloko langileak: OLT/EUD langileen %50eko kopuruari eutsiko zaio.
- Sukaldeko langileak: Langileen %50eko kopuruari eutsiko zaio. Grebak irauten duen bitartean jakiak prestatzea izango da haien eginbehar bakarra.
- Garbiketako langileak: Langileen %20ko kopuruari eutsiko zaio. Garbiketa soilik egingo da pertsonen segurtasun edota osasunerako arrisku larria edo berehalakoa duten guneeetan.
- Harrera-atezaintzako langileak: Bakarrik emango da egoitzen sarrera nagusiko zaintza eta kontrol zerbitzua, pertsona bakarra txandako zerbitzuaren ohiko ordutegian.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek lan egin beharko du, baina «zuzeneko arreta» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

Eguneko zentroetan, adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan eta hezkuntza bereziko zentroetan, baita mendekotasun- edo desgaitasun-mailaren bat duten pertsonak hartzen dituzten bestelakoetan ere, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50arekin, gosaria, bazkaria eta afaria emateko ohiko ordutegian izan ezik, tarte horietan % 10 handituko baita ehuneko hori. Era berean, gutxieneko zerbitzu gisa ezartzen da langile sanitarioen eta sukaldeko langileen % 50. Baldin eta % 50 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu. Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek lan egin beharko du, baina «zuzeneko arreta» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo. Era berean, eguneko zentroetara joaten diren pertsona mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako nahitaezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-gaitasunera behar beste egokituta.

Etxeko laguntzaren sektorean, zerbitzu hauek egingo dira:

- Janari-zerbitzua emango da. Ahal dela, aurretik egindako edo aurretik egiten diren elikagaietara joko da.
- Zerbitzu hauek emango dira: eguneroko higiene pertsonalean lagunduko da, bai eta komuna erabiltzen ere, eta, hala badagokio, maskuri- eta heste-hustuketa egingo da; jaikitzen, oheratzen eta janzten lagunduko da, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratuko da.





- Hitzordua aurretik ezarri bada eta atzeratu ezin badaiteke, osasun-zentroetara joaten lagunduko zaie erabiltzaileei.
- Halaber, eguneko zentroetara joaten lagunduko zaie.
- Ohean dauden pertsonen behar diren jarrera-aldaketak egingo zaizkie.

II. eta III. mendekotasun-gradua duten pertsonen bakarrak emango zaizkie zerbitzu horiek.

5.- Adingabeen etxebizitza komunitarioetan, hezkuntza-zentroetan eta egoitzetan, bai eta esku-hartze sozialeko zentroetan ere, jaiegun bati dagozkion zerbitzuak mantenduko dira.

6.- Ikastetxeetan ondoren adieraziko diren zerbitzuak emango dira, langile hauekin:

- a) Ikastetxeetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro publiko eta lotutako eraikin bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
- b) Haurreskolak Partzuergoa eta udal titulartasuneko haurtzaindegiak: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro eta lotutako eraikin bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona bat eta koordinatzaile 1, ordezkaturako duen pertsona 1.
- c) Udalaren titulartasuneko musika-eskolak eta antzeko beste edozein zentro: Zentroetarako eta horiei lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzeko, atezainen plantillako pertsona 1 lotutako eraikinetako bakoitzerako eta goizeko eta arratsaldeko txanda bakoitzerako.

BIGARRENA.- Arestian aipaturako zerbitzuak greba-eskubidea baliatzen ez duten pertsonen emango dituzte, langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean izan ezik.

Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresetako nahiz administrazio publikoetako zuzendaritzak izendatuko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, agindu honetan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Agindu honen aurreko idatz-zatietan jasotako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu haiek egiteko izendatuta dauden langileen aldatzea edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

LAUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatuak ez du esan nahi mugatu egingo direnik grebari buruzko araudiak egoera horretan daudenei aitortzen dizkien eskubideak, ez eta grebaren eskakizunen tramitazioa eta ondorioak ere.

BOSGARRENA.- Jakinarazi agindu hau grebaren deialdia egin duten erakunde sindikalei, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde sindikal adierazgarrienei, Eudel eta administrazio publikoei, bete dezaten.





SEIGARRENA.- Ebazpen hau jakinarazi interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan, eta ohartarazi ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian —dagokion salan—, 2 hilabeteko epean —ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita—, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatuari jarraikiz, jakinarazi agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezaketela, lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

ZAZPIGARRENA.- Agindu hau, jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 26a.



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA

